



Guztien eskubideen alde

Giza eskubideen defendatzaileen
eta migratutako ekintzaileen online
topaketa feminista

Memoria 2020

KREDITU-ORRIA:

“Guztien eskubideen alde”. Giza eskubideen defendatzaileen eta migratutako ekintzaileen online topaketa feminista. Memoria. 2020

ARGITALPEN HAU KOORDINATU DUTE:

Calala Fondo de Mujeres

BILERAREN DATA:

2020ko abenduaren 13an.

URTEA ETA LEKUA:

Bilbo, 2020

ITZULPENA:

Garazi Eizaguirre Agoues

ARGITALPEN-DISEINUA:

Aline Romero

LAGUNTZAILEAK:



ELKARLANA:



ESKER ON

Eskerrak eman nahi dizkiegu, bereziki, parte hartu duten emakume migratuen erakundeei, Mesoamericana de Mujeres Defensoras de Derechos Humanos (IM-Defensoras) erakundeari eta Tzk´at, Red de Sanadoras Ancestrales del Feminismo Comunitario Territorial. desde Iximulew-Guatemala erakundeari.

Fundación Calala Fondo de Mujeres

C/Aragón 424, 08013, Barcelona

Tel. +34 931 39 74 20

Email: calala@calala.org

www.calala.org

Calala Fondo de Mujeres elkarteak emakumeen mugimenduak indartzen dihardu 2010etik Erdialdeko Amerikako eta Espainiako Estatuko emakume -talde eta -sareei dohaintzak emanaz. Mundua aldatzen ari diren emakumeei boterea ematen die.

Egin bat

CALALARAKIN

Sartu

www.calala.org

calala
Fondo de Mujeres

AURKIBIDEA

AURKEZPENA **5**

AURREKARIAK **6**

GARAPENA **7**

Marusia López

Iniciativa Mesoamericana de Mujeres Defensoras
de Derechos Humanos (IM-Defensoras)

Nallely Tello

Consortio para el Diálogo Parlamentario
y la Equidad Oaxaca AC y de la IM-Defensoras

Lorena Kab'nal - Tzk'at

Red de Sanadoras Ancestrales del Feminismo
Comunitario Territorial desde Iximulew-Guatemala

Carla Gómez Davies

Mujeres con Voz

ONDORIOAK **18**

AURKEZPENA

Abenduaren 13an, igandea, egin zen “Por los derechos de todas” izeneko giza eskubideen defendatzaileen eta migratutako ekintzaileen online topaketa feminista, Fundación Calala Fondo de Mujeres eta Mujeres con Voz erakundeek sustatua, Garapenerako Lankidetzarako Euskal Agentziak eta Garapenerako Lankidetzarako Kataluniako Agentziak diruz lagundutako proiektu baten zati gisa, eta hainbat euskal erakunderen laguntzarekin. Giza Eskubideen Nazioarteko Egunaren (abenduaren 10a) eta Pertsona Migratuen Nazioarteko Egunaren (abenduaren 18a) gogoeta-testuinguruan pentsatu zen ekitaldiaren data.

Topaketa hori beste urrats bat da, Euskadin, Espainiako gainerako herritarrekin eta Erdialdeko Amerikako eskubideen defendatzaileekin lotuta, emakume migratuen taldeek egiten dituzten aliantzak artikulatzeko eta indartzeko. Mundu guztiari irekitako gune bat izan zen, eta agenda oso zehatza izan zuen: estrategiak trukitzea, aliantzak sortzea eta lan aktibista agerian uztea, Euskadiko eta munduko giza eskubideen aldeko aktibistek dituzten erronkei gero eta hobeto aurre egiteko.

Lehen zatian, lau hizlari gonbidatu izan ziren. Ongietorriaren ondoren, Carla Gómez Daviesek, Mujeres con Voz Euskadi taldeko kideak, azken hilabeteotan migratutako emakume-taldeek lurraldea eta estatua antolatzeke egindako lanaren memoria eskaini zuen.

Bestalde, Marusia Lópezek Iniciativa Mesoamericana de Mujeres Defensoras de Derechos Humanos (IM-Defensoras) erakundearen proposamena aurkeztu zuen sareko lanari dagokionez.

Ondoren, Nallely Tello, Consorcio para el Diálogo Parlamentario y la Equidad Oaxaca AC, eta IM-Defensoras elkarteko kideak, IM-Defensorasek egindako babes integral feministaren proposamenari buruzko informazioa partekatu zuen.

Aurkezpenei amaiera eman zien Lorena Kab’nal, Tzk’at, Red de Sanadoras Ancestrales del Feminismo Comunitario Territorial desde Iximulew-Guatemala elkarteko kideak, eta Sareak abian jarritako laguntza- eta osatze-prozesuen berri eman zuen.

Hitzaldien ondoren, eztabaida ireki bat izan zen, elkar- artikulatzen, -zaintzen eta norbere burua zaintzen jarraitzeko beharrari buruzko gogoetekin, gizarte gero eta berdintasunzaleagoak sortzeko, pertsona guztiak eskubide guztien jabe izan daitezzen.

Dokumentu honek lurralde, estatu eta nazioarteko prozesu osoaren memoria biltzen du. “Por los derechos de todas” topaketaren bideoa osorik dago www.calala.org webgunean.

AURREKARIAK

Calala Fondo de Mujeres Fundazioarekin batera egindako prozesu baten barruan, Euskadiko eta Espainiako hainbat emakume migratu ekintzailek beren ahalduntze- eta elkartasun-helburuak betetzeko sendagoak eta eraginkorragoak izateko aliantzetan sakontzeko beharra identifikatu zuten.

Kausa izan ordez, COVID-19 pandemiak eragindako krisi-testuingurua larriagotze-elementutzat hartu zen, eta, izatekotan, lehendik zegoen eskubide-urraketaren ondorio gisa.

Egoera berri horren aurrean, taldeak beren kide eta komunitateei laguntzen jarraitzeko antolatu ziren.

Artikulazio-lan horren barruan, emakume migratuen hainbat taldek artikulazio-prozesu paraleloak hasi zituzten Euskadin, Andaluzian, Katalunian eta Madrilen.

Handik, gai zerrenda bat sortu zen, “Fortaleciendo estrategias colectivas: Alianzas para una crisis que no es nueva” (“Estrategia kolektiboak indartuz: Berria ez den krisi baterako aliantzak”) aktibisten, kolektiboen eta emakume migratzaile eta arrazializatuen sareen Estatuko Topaketan aktibistaeta erakundeek kolektiboki landu zutena.

Topaketa hori 2020ko azaroaren 29an egin zen, online. Espainiar estatuan emakume feminista migratuen mugimendua indartzeko beste urrats bat da prozesu hori.



GARAPENA

“Guztien eskubideen alde” izeneko giza eskubideen defendatzaile eta ekintzaile migratuen on line topaketa feminista Calala Fondo de Mujeres elkarteak 70 parte-hartzaileri baino gehiagori ongietorria emanaz hasi zen. Gehienak Euskadin eta Espainian migratutako eskubideen defendatzaileak dira, hainbat jatorritatik etorriak; euskal ekintzaile autoktonoak, eta Erdialdeko Amerikako eskualdeko bizitzaren eta giza eskubideen aldekoak.

Agurraren ondoren, Carla Gómez Davies, Mujeres con Voz taldeko kideak eta Euskadiko migratzaile aktibistak, lurralde eta estatu mailako artikulazio-prozesua **Ekintzaileen, kolektiboen eta emakume migratzaile eta arrazializatuen sareen topaketa: “Estrategia kolektiboak indartuz: Berria ez den krisi baterako aliantzak”**-ren ondorioak aurkeztu zituen. Prozesu horretan, dinamizatzaile-lotura funtzioa izan zuen.

Carla Gómez Davies

2020ko azaroaren 29an, emakume migratzaile eta arrazializatuen sareen, taldeen eta aktibisten Estatuko online topaketa egin zen: “Estrategia kolektiboak indartuz: Berria ez den krisi baterako aliantzak”.

Berrogeita hamalau lagun bertaratu ziren, batzuk erakundeen izenean eta beste batzuk norbanako gisa. Bilerari hasiera emateko, lotura-bideratzaileak laburpen bat egin zuen, eta, ondoren, lurralde-bideratzaile bakoitzak xehetasun gehiago eman zituen azaroan lurralde bakoitzean egindako topaketei buruz.

Etenaldi labur baten ondoren, eztabaida zabaldu zen, eta parte-hartzaileek beren iritziak, ikuspuntuak eman zituzten, eta bizi duten zapalkuntza-egoerei buruz hitz egin zuten, baita aurrera egiteko erabiltzen dituzten estrategiei buruz ere.

Oso topaketa plurala izan zen; aurpegi, ahots, jakintza, ideia eta iritzi askorekin. Horregatik, zaila da denak ordezkatzea.

Lekukotasunak entzutean, erraz antzematen zen elkarteak ez zeudela “garapenaren” puntu berean. Batzuk beren identitatea bilatzen ari dira eta beste batzuk ez daude formalki eratuta, batzuetan gai horiei buruzko informaziorik ez dutelako eta beste batzuetan uste dutelako lehendabizi norantz eta norengana jo nahi duten jakin behar dutela. Xedeei eta helburuei buruz hitz egitean, aniztasun handia dago, baina puntu komun batekin: emakume migratuen bizitzak bizitzea merezi duen bizitzak izateko baldintzak sortzea.

Hobetu beharreko alderdiei buruz hitz egitean, hainbat puntu izendatu ziren:

Ahizpatasunaren beharraz eta horizontaltasunaz hitz egiten da; matxismoa eta bertikaltasuna harremanetarako modu bakar gisa alde batera utzita, eta egitura patriarkalak iraunarazten dituzten aliantzei uko eginez. Behar diren baliabide guztiak ez dituztenak atzean ez uzten saiatzea, baina kideei autonomia eta ahotsa kentzen dieten praktika maternalistarik gabe.

Era berean, teoriak giza alderdia ukatuko ez duen prozesu sentituago batekin, dekonstrukzio eta entzute aktiboko prozesuekin bat joan behar duela aipatu zen. Horrekin lotuta autozainketaz hitz egin daiteke: hain beharrezkoa eta,aldi berean, seriotasun gutxirekin hartutako terminoa. Norbera eta kolektiboa zaintzea denbora galtzea balitz bezala.

Horrez gain, emakume migratuei buruzko pertzepzioari buruz hausnartu zen, orain dela hamarkada batzuetan zegoen berbera izaten jarraitzen du. Berengain estereotipo asko daude, eta, gehienetan, ez diete uzten beren bizitza askatasunez bizitzen: lan-nitxo prekarioetara mugatuz, Europako ereduarekin lotuago dagoen amatasuna gauzatzera behartuz, gaizki sentiaraziz, eta are zigortuz, eredu horretatik urruntzen badira. Gainera, seme-alabei nortasun propioa izateko aukera kentzen diete eta diskurtso eurozentrismo koloniala ezartzen saiatzen dira.

Parte-hartzaile afrikarrek gogotik egin zuten eskaria, askotan hizkuntza ez dela langa esanez, eta migratutako beste emakume batzuei espazio eta aukera partekatuak aurkitzeko ahalegin bateratua egiteko eskatu zieten.

Hain aberasgarria eta askotarikoa izan zen, non emakume migratuek dituzten kezka ugari azaleratu baitziren: tituluen homologazioa, osasun-sistemako indarkeria, batez ere indarkeria obstetrikokoan, arrakala digitala. Ez da ahaztu behar, une honetan bereziki, osasun-krisiaren ondorioz elkarte guztiek beren arreta-gunea aldatu zutela, lehenbailehen konpondu beharreko arazoak konpontzeko.

Eskubide-urraketa horiei aurre egiteko estrategiak eta proposamenak partekatu zituzten partaideek: etxebizitza edo logela bat alokatzeko zailtasun handia, erroldatu gabe egotea, kanal digitalen bidez bakarrik izateagatik baliabideetarako sarbiderik ez izatea, asoziazionismoari buruzko informazio falta, baliabide ekonomikorik eza, batez ere -, migrazio-dolua, LBT kolektiboaren ikusezintasuna, besteak beste.

Oztopo-zerrenda zabal horren aurrean, sare eraginkor bat eratu beharra planteatu zen, non erraz identifikatu ahal izango diren kideak eta haien lana, bai eta datu-base bat sortzea ere, jakintzak, informazioa, praktika onak eta abar partekatzeko. Taldeak “une” desberdinetan daudela eta helburu guztiak ez direla berdinak kontuan hartuta, baina, aldi berean, agenda komun bat onartuta. Sare hori eragin politikorako tresna gisa planteatzen da, akordioetara iristeko eta, are, errebindikazio-kanpainak egiteko koordinatzeko.

Ondorio gisa, parte hartu zuten emakume migratuek aniztasuna balioetsi zuten, eta, horren baitan, eskaera guztiak bertan egotea eta entzutea eta baloratzea garrantzitsua dela onartuz. Espazio hori, guztien artean, presarik gabe eta etenik gabe eraikitzea espero duten bide askoren hasiera gisa identifikatu zen. Mila esker!

Estatuko topaketaren ondorioak aurkeztu ondoren, Marusia Lópezek, Espainiako Estatuan kokatuta dagoen mexikarrak, Calalako patronatuko eta Coordinadora de Sistematización y conocimiento de la Iniciativa Mesoamericana de Mujeres Defensoras de Derechos Humanos elkarteko kideak aurkezpena egin zuen. Ondoren, bere hitzen laburpena eskaintzen da.

Marusia López

Aspalditik dugu itxaropen handia eta gure ahots mesoamerikarrak artikulatzen jarraitzeko gogo. Guretzat, hemen bizi garen migratzaileak eta Mesoamerikan bizi garenak borroka beraren, historia beraren parte gara, eta oso garrantzitsua iruditzen zaigu elkar ezagutzea.

IM-D salbatzeko sareen premisaren baitan sortzen da. 2010ean egin genuen lehen topaketa batean, indarkeria matxista, Estatuaren errepresiboa, enpresak eta defendatzaileen aurkako krimen antolatua nola ari ginen bizitzen eztabaidatu genuen, baina baita gure etxeetako eta antolakuntza-espazioetako ere. Elkarrizketa horien ondorioz, aktibismoaren sakrifizio-kulturatik gatozela konturatu ginen. Defentsa-sare nazionaletan artikulatzea erabaki genuen, gaur egun Nikaraguan, El Salvadorren, Hondurasen eta Mexikon, gizarte-mugimendu desberdinetako aktibistekin.

Lehenik eta behin, hitz egin egin genuen, indarkeria ulertzeko eta geure artean zaintzen ikasteko. Pixkanaka ikasi dugu geure burua zaindu eta zaindu gaitzaten behar dugula, arrisku-azterketa egin behar dugula, lagun egin behar dugula, geure esperientziatik ikasi behar dugula indarkeria horiei aurre nola egin. Zainketa-lanari denbora ematen ikasi genuen; IM-Defensoraseko sare nazional bakoitzak autozaintzeko eta osatzeko lantalde bat du. Arrisku handiko egoeran geundenean, guretzat eta gure familientzat babesguneak behar genituela konturatu ginen.

Gelditu eta atseden hartu behar genuela ere ikusi genuen, eta horregatik egin genuen atseden eta osasun etxe bat, La Serena izeneko. Ikusi genuen, halaber, garrantzitsua zela errealitatea dokumentatzea eta haren berri ematea. COVID-19 kodean, konturatu gara defendatzaileen %40k ez genuela osasun-zerbitzurik, eta %93 bakarrik geundela zainketa-lanez arduratzeko. Krisi sistemiko horiek eta lurraldea eta arazoia astindu dituzten ekaitzen esparruak bizitza beste paradigma batzuetatik pentsatzera eraman gaituzte. Osatzeko, osasun komunitarioko, protestetako... lan asko egiteko aukera izan dugu. Hori guztia itxaropen handia baita.

Duela urte batzuk, emakume migratu bihurtu nintzen Espainiako Estatuan, kultura arrazista eta patriarkal honetan, eta IMDrentzat migratzaileekiko loturak zein garrantzitsuak diren ikusi nuen. Erdialdeko Amerikako gatazka armatuaren garaian edo Mexikoko gerra zikinaren garaian, emakume migratzaileen rola funtsezkoa izan zen, erbesteratu behar zuenari babesa eta harrera emateko, herrialdeei baliabideak bidaltzeko; beti ikusten dugu arreta handiz nola errotzen den elkartasuna komunitate migratzaileetan. Ez da batere aintzat hartzen migratzaileek hemen defendatzaile gisa dugun esperientzia politiko eta identitate guztia. Identitate hori indartu eta aitortu nahi dugu, hemen guztiz beharrezkoa den jakintza baten babesle gisa.

Ondoren, Nallely Tello Consorcio para el Diálogo Parlamentario y la Equidad Oaxaca AC erakundeko eta IM-Defensoraseko kideak zainketaren gaien sakondu zuen. Aurkezpenaren laburpen bat da hau, eta aldez aurretik grabatu behar izan zen agenda-kontuengatik.

Nallely Tello

IM-Defensoras sortu zenetik, babes integral feminista deritzoguna gai nagusia izan da, eta hiru osagai ditu: segurtasun fisikoa, segurtasun digitala eta autozainketa, zainketa kolektiboa eta osatzea. Zaintza ezin dugu bakarka pentsatu; beti dago sareak eta aliantzak eraikitzean, beste kideak entzutean. Besteen bizipenak eta esperientziak entzutean, elkar identifikatu eta ezagutu dezakegu. Osatzeak arlo pertsonalean ere garrantzia duten praktikak eginaraztea esan nahi du; baina ez da posible kolektibotasunik eta gure antzinako sustrai historikoen ezagutzarik gabe. Markatu gaituen testuinguru batetik gatoz, baina hor ere osatzeko tresnak aurki ditzakegu.

Ikasi ditugun hiru gauzatan jarri nahi nuke arreta. Ez gaude osatuta gai hauetan lan egiten dugunok. Hau bide bat dela jakitea da garrantzitsuena. Batzuetan badirudi atzera goazela, baina gonbitea geure buruarekin errukitsuak izatea da. Bakoitza desberdina da. Errituak, terapia, lagunekin topo egitea, dantza egitea, ura edatea... Bakoitzak sakonki entzun behar du zer behar duen jakiteko. Agian bikote bat hautsi, norbaitengandik distantzia hartu edo norbaitengana hurbildu behar du. Guretzat prozesua oso politikoa da, emakumeak beste pertsona batzuen zerbitzura jartzen dituzten rol eta estereotipoak hausten laguntzen baitigu. Batzuetan, besteak dira gure zentroa.

Ez dugu esaten: “ez egin jaramonik” beste pertsoneri edo aktibismoari. Hau esaten dugu: “Egin dezagun defentsa lan hori, baina baita geure buruarengan, gure beharretan, beste pertsonentzat eskatzen ditugun eskubideak lehen pertsonan bizitzeko ere”. Batzuetan, sintoma agertzen da, eta entzun egin behar dugu. Eskubidea dugu lehen pertsonan bizitzeko besteentzat eskatzen ditugun eskubideak, geure burua erdigunean jartzeko, emakume gisa onartzeko, gure berezitasunean. Geure burua eta gorputza indarberritzen direnean, indarra berreskuratzen dugu mundu berriak amesten jarraitzeko. Garrantzitsua da bakarrik ez gaudela jakitea. Batzuetan, ahaztu egiten zaigu burua baino gehiago garela; gorputz fisikoa ez ezik, beste giza gorputz batzuekin eta ibaiekin, mendiekin, itsasoekin eta abarrekin ere erlazionatuta gaudela, mundu honetan bizi den eta ere defendatzen dugun guztiarekin.

Serena-T autozainketa-tresna ezagutzera gonbidatzen zaituztegu. Hainbat jakintzaren emaitza da, #AnteLaCrisis kanpainaren zati bat. Kanpaina hori Consorcio Oaxaca n sortu dugu (IM-Defensoraseko kide den erakundea), eta Google Play Storen.

www.cuidadoysanaciondh.consorciioaxaca.org

webgunean deskargatu daiteke. Beste baliabide batzuk ere aurki daitezke han. Eta laster elkar ikusteko aukera izatea espero dugu.

Azken hitzaldia Lorena Kab'nal, Tzk'at Red de Sanadoras Ancestrales del Feminismo Comunitario Territorial desde Iximulew-Guatemala erakundeko kideak eman zuen. Hona hemen aurkezpenaren laburpena.

Lorena Kab'nal

Gaurko egunak zerikusi handia du osagileekin. Ni amagandik, amonarengandik eta antzinako belarzaleengandik nator. Red de Sanadoraseko emakumeok norberak ehuntzen eta gorpuzten dituen jakintzak ditugu. Komunitate indigenetan hitz hori erabiltzen dugu, gorpuztea (“acuerpamiento”) ahizpatasun hitzaren ordeaz, emakumeen arteko komunitateetako bizitzari eusten dion harreman oso sakonaz hitz egin ahal izateko.

Gorpuzte horren moduetako bat da onartzen dugula sexu-indarkeria bizi izan dugula koloniaren aurretik, kolonian eta, ondoren, Guatemalako gerra kontrainsurgentean eta etapa neoliberal horretan (defendatzaileak kriminalizatuz, erauzketa-industrien bidez...). Gure gorputz eta espirituetan somatizatzen diren indarkeria horiek pisu handia dute geure memorietan, zapalkuntzak barneratzen baitituzte. Bizitzaren eta giza eskubideen defendatzaile izendatzea gustatzen zaigu. Gure bizitza jokoan dago, matxismoa dago gure komunitateetan ere, meatzaritzako enpresen, narkotrafikoaren eta abarren indarkeria bizi dugu. Orduan, gure komunitateetatik atera behar dugu, eta lurralde-zurztasun politiko deritzoguna (“orfandad política territorial”) sentitzen hasten gara. Horrek elkartu egiten gaitu, eta 2014ean partzuergo bat sortu zen egoera hori konpontzeko. Gure artean hitz egiten hasi ginen gure lurraldean ez egotearen sentimenduaz, antzinako lurraldeen aldeko borrokaren esparruan eragindako lurralde-desplazamenduaz, gure gorputzak migratzeko modu bortitzaz. Oso indar ederra hasten da biktima gisa ez geratzeko.

Sare hau oso nomada da. Etxetxo bat dugu, baina ez da publikoa, segurtasunagatik. Eta lurralde horietan, oso ahozkoa den antzinako osatzeko modua sortzen ari gara. Ez dugu ezer sistematizaturik. Komunitate indigenentzako ahozko apustua da dena. Espazio indigena horietan, hainbat mailatan ari gara sendatzen; espirituala oso giltzarria da. Emakume indigenentzako lehen babesak babes espirituala da. Zuk bizi duzuna nik bizi dut; sintomek, larritasunek... mina eragiten digute, baina ez gaituzte geldiarazten. Amorrua kanalizatu egiten dugu, esan bezala isurtzen dugu. Orain doluak bizi ditugu COVID-19 dela eta, lota eta Eta ekaitzak, sexualki bortxatutako neskatok, feminizidioak, neskatoen eta nerabeen haurdunaldiak... Ez dugu uste sistema patriarkalari arrazionaltasun feministatik aurre egin ahal izango diogunik. Gure gorputzak suspertu behar ditugu, opresio ugariei aurre egiteko. Gorputz gaixoeekin eta tristeekin ezin da, energia bizizalea eta poza behar ditugu.

Ondoren, eztabaida hasi eta gogoetak sakontzen jarraitu zuten.

Marusia Lópezek komunitate indigenen jakintzak aitortu zituen. Nabarmendu zuen konfinamendu horretan asko ikasi genuela kide garifunengandik, haien indarretik eta krisi honi aurre egiteko moduagatik, sistema immunologiko komunitarioa sendotuz, antolaketa kolektibo komunitarioan. Azaldu zuenez, IM-Defensorasek #AnteLaCrisis kanpaina du sare sozialetan. Hainbat motatako tresnak ditu, hainbat lagunek eskuzabaltasun handiz emanak, eta La Serena atsedeen-etxearen esperientziari buruzko informazioa.

Soledad Requenak, berriz, Peruko migratzaile batek, Brasilen, “emakume migratzaile eta errefuxiatuen eskubideekiko kezka handia” adierazi zuen. Horietatik %90 emakumeak dira -nabarmendu zuen-. Brasilgo emakume migratzaileen populazioa %400 hazi da, eta beren seme-alabekin datoz, oso egoera ahulean. Antzinako ezagutzaren historia dakarte, baina hemen interferentzia asko dago. Indartsua da ikuspegi eurozentrikoaren hegemonia, akademiak antzinakotasunean eragiten duten ikerketa asko egiten ditu. Latinoamerikako eskualde honetan kitxua eta aymara herrien ezagutzarekin konektatzeko aukera dago”. Lan partekatuaren garrantzia ere nabarmendu zuen Requenak.

“Aliantzak sortzen jarraituko dugu. Garrantzitsua da entzun berri dudana. Ez gaude bakarrik, elkarrekin gaude honetan...”

Emakume askoren ahotsa naiz, gogor lan egiten dugu Sao Pauloko auzo periferikoenetan, non indigena boliviarrak, peruarrak eta paraguayarrak dauden, eta egoera dramatikoan daude. Lider horiekin hau nola partekatu ikusiko dut. Gure istorioak berreskuratzen ere saiatzen ari gara”.

María Bastidas, Asociación de Trabajadoras y Trabajadores del Hogar de Sevilla erakundeko laguntzaileak, honako hau azpimarratu zuen:

Independentziaz, autonomiatik, autozaintzan lan egiteko aukera ematen digu, baina baita familia, lana eta gizartea zaintzeko ere. Guk tratu onaren ikuspegitik egiten dugu lan. Tratu txarrak modu kontziente edo inkontzientean ematen dituzten gauzak uzten ikasten dugu. Tratu ona

“Autozainketa arazo kolektiboa da eta gai politikoa da. Geure burua zaintzen ikastea txikitan irakatsi zigutena desikastea da...”

lantzea balio berriekin, gure artean eta naturarekin erlazionatzeko beste modu batzuekin. Indarkeria ugari bizi dugu. Gure beldurrak ere gelditzen gaitu. Tratu onaren ikuspegitik, osatzeko eta eraldatzeko prozesuak egiten ditugu. Talde, komunitate eta lurralde bakoitzak erresistentzia anitzak egiten ditu. Uste dut espazio hori oso garrantzitsua dela, hiru emakume jakintsu horiei entzun ahal izatea. Eta zainketa-lana aitortzen jarraitu behar da”.

Kideen hitzen ondoren, **Lorena Kab'nalek** hau berretsi zuen: “Gaur egungo testuinguruetan, jatorrizko komunitateen mugikortasun handia egongo da, beren antzinako lurretatik aterata. Ez ditut populazio ahul gisa ikusten, ez bada populazio ahuldu gisa. Ez naiz pobrea, nire gorputzaren eta historiaren gaineko eredu kapitalista eta patriarkalak pobretua naiz. Brasilgo komunitateak megaindustriak jazarritako komunitateak dira, eta lurretik ateratzeak esan nahi du lurrak berak ere indarkeria bizi duela eta komunitatea bere jakintzekin ateratzen dela, nahiz eta antzinako praktika horiek ezagutza magiko-erlijioso, enpiriko gisa izendatzen diren, asmo argiko batekin (desprestigiatzea). Gaur egun, Osasunaren Mundu Erakundea ikerketa espezifikoak egiten ari da COVID-19 delakoaren testuinguruan komunitate indigenak erabiltzen ari diren landareei buruz, birusaren aurrean erantzun immunologikoa indartzeko. Konplexutasun horretan sinesten dut herrien jakinduria pluralean eta herrien esnatzean. Emakumeek ez dute Guatemalan egiten dugunaren kopia bat egin behar, bestela munduko jakintzen aniztasuna hausten baita. Gaur egun, munduan feminista izatea bizitzarako beste dimentsio bat ekartzea da, sormenez politikoak eta osasuntsuak izatera bultzatzen gaituena, amekin, amonekin, zaharrekin, bizilagunekin, merkatuko emakumeekin... beste harreman batzuk ezartzea.

“Gonbidatzen zaituztet, ahizpa feministak. (...) Emakumeen oroimen osasuntsua piztera, ez zama bat hartzeko, baizik eta beste belaunaldi batzuk ere tartean sartzeko; landareez dakitenak bilatzera, hiritartzean bizirauteko egin dituzten amei galdetzera. Nik ez dut sinesten osatzeko modu bakar batean, baizik eta ehuntzera bultzatu gaituen aniztasunean....”

Zuek guztion artera garai hauetan hil ala bizikoa den elementu bat ekarri nahiko nuke: samurtasunaren energiarekin osatzea oso politikoa da, oso erotizatzailea da bizitza defendatzeko gure izateetan”.

ONDORIOAK


Beste hitzaldi batzuen bidez eta topaketako txataren bidez, hainbat parte-hartzailek beren emozioa eta zorion-mezuak helarazi zizkieten hizlariei, eta beren hitzetan jakinduria, itzaropena eta energia aurkitu zituzten pertsona guztien eskubideen alde lanean jarraitzeko.

Ekitaldiaren amaieran, hiru gonbidatuei azken hausnarketa egiteko eskatu zitzaien, eta hala erantzun zuten.

Marusia López

Iniciativa Mesoamericana de Mujeres
Defensoras de Derechos Humanos
(IM-Defensoras)

Nik itxi nahi nuen adieraziz, esperientzia honetan, eta beste askotan, 10 urte daramatzagula, gure artean hitz egiten eta zalantzan jartzen ikasten, gure kontraesanak, gure botere-harremanak eta gure pribilegioak onartuz. Itun politiko bat eraiki behar dugu, kideren bat kartzelaratzten dutenean, edo gehiago ezin duenean, edo gure komunitateetako bat botere horiek jazartzen dutenean, elkarrekin aurre egiteko sare sendoa izan dezagun. Ez da erraza, baina funtsezko jakintza eraiki duten kideekiko errespetu sakonak lagundu digu. Alde honetan ere asko ikasi dut emakume migratzaileekin, eta inspiratu egin naute. IM-Defensorasen jakintzen arteko elkarrizketa egiten dugu, auzitan jartzen gara, baina, batez ere, elkarrekin ateratzen gara kide batek bere bizitzako indarkeria bati aurre egiten dionean, denei eragiten baitigu.



Lorena Kab'nal - Tzk'at

Red de Sanadoras Ancestrales del
Feminismo Comunitario Territorial
desde Iximulew-Guatemala

Mila esker guztioi kontatu eta parte hartzeagatik. Utzi nahi nizueke sentipen bat: osatzea prozesu pertsonala, politikoa eta kontzientea da, biziberritu eta pozten gaituena, gure existentziatik. Sistema patriarkalak zorigaiztoko gorputzekin hiltzea nahi duelako. Guri poz handia ematen digu eta sistema patriarkala "izorratzeak" erotizatzen du, hitz horiekin, leku guztietan ulertzeko modua, hainbeste erretolikarik gabe. Merezi du garai hauetan indarberritzea. Dantza, mugimendua, jaki gozoak, hosto berdeak, limoizko edo sagar-ozpinezko agüita eta bikarbonato apur bat hartzea gonbidatzen zaituztegu. Izan ere, feministak izatea zoragarria da, baina 24 ordu esna bagaude eta 24 ordu suminduta bagaude... Eta ilargiaren fase honetan, har ditzagun landare diuretikoak, barruan dauden indignazioak txizatan botatzeko. Poza izan da, plazera, espazio hau partekatzea, eta plazer-energia horrekin bizitzen jarraitzea. Har ezazue agur bero bat. Argia, jakinduria, bizitasuna zuentzat eta zuen maitasunentzat.



Carla Gómez Davies

Mujeres con Voz

Denak gonbidatzen zaituztet Lorenaren gonbita zerbait pertsonaltzat hartzera. Eta samurtasunarekin osatuko ditugu besteekin ditugun loturak, alde batean eta bestean gaudenok; lurraldearen honetan jartzen saiatuko gara. Orain oroimen hori berreskuratu nahian gabiltza, antzinako lotura hori berreskuratu nahian, eta hainbeste izanda, buru-belarri ekin beharko diogu, horren parte sentituz eta besteei helarazten jarraituz. Hemen bazaudete, egon behar zenutela uste zenutelako da, eta niretzat ohorea da parte hartu izana eta esateko genuena gustatu izana.



Lurralde-, estatu- eta nazioarteko topaketetan, bertako eta migratutako bizitzaren defendatzaileen beharrak, nahiak eta interesak identifikatu ziren, Euskadin eta munduan:

- Emakume migratuen aktibismoa ikusaraztea.
- Antzinako jakintzen ospea berreskuratzea, horiek erabili eta aldi berean arubiatzen dituen testuinguru eurozentriko batean.
- Desberdintasunen alderdi onak balorizatzea: jakinduria, ikaskuntza, dibertsioa.
- Eskubideen defentsan gero eta ugariagoak izateko lanean jarraitzea.
- Bati eragiten dionak guztioi eta bizitza osoari eragiten diola kontzientziatzea eta. kontzientziaraztea.
- Elkarriketaren bidez, kultura bakoitzeko emakumeen jakinduria ezagutzea.
- Kideak zaindu eta zaintzea aktibismoan.
- Bizitza defendatzea.
- Munduko bizi-defendatzaileak, bertakoak eta migratuak konektatzea.
- Aldian behin elkartzea, elkar ezagutzeko.
- Norberaren esperientzietatik eta esperientzia kolektiboetatik ikastea.
- Guztien eskubideen alde elkarrekin jarraitzeko konpromisoa hartzea.
- Ez ahaztu gozatzea, samurtasuna, erotismoa, eta bizi eta indartsu mantentzen gaituen poza.

Hala ere, ez da zerrenda itxi bat, ez behin betikoa, urrutitik datorren eta bere bideari jarraituko dion prozesu bizi eta aldakor bateko une bat baizik. Abenduaren 13ko topaketa 2021ean aurrez aurreko topaketa bat egiteko nahiarekin eta antolatzaile eta parte-hartzaileek hori posible izateko lana egiteko konpromisoarekin amaitu zen.

Carla Gómez Davies

Mujeres con Voz

Eta samurtasunarekin osatuko ditugu besteekin ditugun loturak, alde batean eta bestean gaudenok; lurraldearen honetan jartzen saiatuko gara. Orain oroimen hori berreskuratu nahian gabiltza, antzinako lotura hori berreskuratu nahian, eta hainbeste izanda, buru-belarri ekin beharko diogu, horren parte sentituz eta besteei helarazten jarraituz.

Itun politiko bat eraiki behar dugu, kideren bat kartzelaratzen dutenean, edo gehiago ezin duenean, edo gure komunitateetako bat botere horiek jazartzen dutenean, elkarrekin aurre egiteko sare sendoa izan dezagun. Ez da erraza, baina funtsezko jakintza eraiki duten kideekiko errespetu sakonak lagundu digu. Alde honetan ere asko ikasi dut emakume migratzaileekin, eta inspiratu egin naute.

Marusia López

Iniciativa Mesoamericana de Mujeres Defensoras de Derechos Humanos (IM-Defensoras)

Lorena Kab'nal-Tz'k'at

Red de Sanadoras Ancestrales del Feminismo Comunitario Territorial desde Iximulew-Guatemala

Utzi nahi nizueke sentipen bat: osatzea prozesu pertsonala, politikoa eta kontzientea da, biziberritu eta pozten gaituena, gure existentziatik. Sistema patriarkalak zorigaitzoko gorputzekin hiltzea nahi duelako.

calala

Fondo de Mujeres

www.calala.org

calala@calala.org

 @FondoCalala

 @calalafondodemujeres

 @CalalaFondo